HIRU loteen zerbitzu ordutegia departamentuak egiten duen ekintza programazioak baldintzatuko du. Programazio hori eta beharrezko ordutegi eta zerbitzu aurreikuspena astero jakinaraziko die enpresa adjudikazio-hartzaileei departamentuaren arduradunak edo zerbitzu teknikoko arduradunak.

7. ERRENTERIAKO UDALAREN ESKUMENAK

Errenteriako Udalak, Kultura departamentuaren bidez, ondorengo eskumenak izango ditu:

• Egitasmo desberdinetan eskaintzen diren zerbitzuak zuzentzeko, berrikusteko eta kudeatzeko eskumena.

• Espazioen funtzionamendua, irekiera eta itxiera zein bestelako aldaketak arautzeko eskumena.

• Udalak ezarriko ditu zerbitzu ezberdinetan kobratu beharreko prezioak, esaterako, ikuskizunetarako sarrerak, aretoen alokairua, matrikulak, etab.

los servicios licitados.

A tal efecto, la/las empresa/s adjudicataria/s deberá/n indicar un número de teléfono móvil, así como un correo electrónico de atención de petición de servicios que funcione los 365 días del año en un horario mínimo de 08:00-22:00 de lunes a domingos, festivos incluidos.

6. HORARIO

El horario de servicio de los **TRES lotes** estará condicionado por la programación de actividades que se realice desde el departamento de Cultura. Esta programación y la previsión de horarios y servicios necesarios se trasladará semanalmente a la/s empresa/s adjudicatarias por el responsable del Departamento o jefe del servicio técnico.

7. FACULTADES DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

El Ayuntamiento de Errenteria, a través de su Departamento de Cultura, ostentará las siguientes prerrogativas:

• Dirigir, supervisar y controlar el desarrollo y gestión de los servicios que se ofrezcan

• La regulación del funcionamiento, modificación, apertura y cierre de los espacios.

• El Ayuntamiento fijará los precios a cobrar por los diferentes servicios que se presten, tales como entradas para espectáculos, alquiler de salas, matrículas, etc.

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-200720O-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

• Udalak zuzenean eta era jarraian ikuskatu eta zainduko ditu agindutako zerbitzuak, horretarako izendatutako arduradunen bitartez, eta esleipendunari eman ahalko dizkio egokitzat jotzen dituen argibideak kontratatutako zerbitzuak hobeto eman ditzan, betiere horiek indarrean daudenen edo kontratuko dokumentuen klausulen aurkakoak ez badira.

• El Ayuntamiento ejercerá de forma directa y continua la inspección y vigilancia de los servicios encomendados a los licitadores por medio de los responsables designados al efecto, y podrá dar al adjudicatario las instrucciones que estime oportunas para la mejor prestación de los servicios contratados, siempre que éstas no se opongan a las disposiciones en vigor o a las cláusulas de los documentos contractuales.

• Akatsen bat aurkituz gero, dagokion espedientea irekiko da. Lehenengo aldian, idatzizko ohartarazpena egingo da; bigarrenean, berriz, zigorrak ezartzeko dagokion espedientea hasiko da, eta, hala badagokio, kontratua suntsiaraziko da.

• Si se encontrase deficiencia alguna, se incoará el correspondiente expediente que, en la primera ocasión, dará lugar a apercibimiento por escrito, y en la segunda, se incoará el oportuno expediente de imposición de penalidades dirigido, en su caso, a la resolución del contrato.

Programazioaren beharren arabera, Udalak beretzat gordetzen du eskatutako zerbitzua oinarri hauetan adierazitakoa ez den beste udal eraikin edo espazio batean eta, salbuespen gisa, kalean egiteko eskatzeko ahalmena.

En función de las necesidades de la programación el Ayuntamiento se reserva la facultad de solicitar que el servicio requerido se realice en otro edificio o espacio municipal distinto al señalado en estas bases y excepcionalmente en la calle.

• Programazio beharren arabera Udalak eska dezake kontratu honetan jaso gabe dauden baina antzekoa izango den beste zerbitzuren bat egitea adb: espazioak konfiguratzen laguntzea, aretoetako espazioak erakustea, udal-langileei trebakuntza-saioak eskaintzea espazioetan dauden gailuen funtzionamendua ikasi dezaten, horrek ez du suposatuko kontratuaren aurrekontua handituko denik.

• En función de las necesidades de la programación el Ayuntamiento se reserva la facultad de solicitar otras tareas similares a las indicadas en este contrato como por ejemplo: contribuir a la configuración de espacios, la exhibición de los espacios de las diferentes salas, ofrecer sesiones formativas al personal municipal para el aprendizaje del funcionamiento de los dispositivos existentes en los espacios, sin que ello suponga un aumento del presupuesto del contrato.

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

• Kontratistak aretoetan bestelako erabilerak egitea ukatu egiten da, berariazko baimena izan ezean.

• Udalak, Kultura sailaren bitartez, enpresa esleipendunari bidaliko dio, astebeteko aurrerapenarekin, areto desberdinetan burutuko diren ekintzen egutegia, bertan egin beharreko zerbitzuak adieraziz.

• Salbuespen gisa, zerbitzuak egiteko eskaera astebete baino aurrerapen gutxiagorekin egitea eskatuko da eta enpresa esleipendunak zerbitzua eskaini beharko du. Gerta daiteke egin beharreko lanen artean eskatutako zerbitzuren bat azken orduan bertan behera gelditzea.

• Queda excluido cualquier otro uso de las salas que pudiera realizar el contratista, sin autorización expresa.

• El Ayuntamiento, a través del departamento de Cultura, trasladará a la/s empresa/s adjudicataria/s, con una semana de antelación, el calendario de las actividades de las diferentes salas, indicando las tareas a realizar en las mismas.

• En casos excepcionales se solicitarán servicios con una antelación inferior a la semana que la empresa licitadora deberá de cumplir. También podrá darse el caso de que alguno de los servicios solicitados en el plan de trabajo, se anule en el último momento.

8. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Kontratistak, baldintza-agiri ekonomiko-administratiboetan jasotakoez eta kontratu-gaietan aplikatzekoak direnez gain, ondoko betebehar bereziak bete beharko ditu:

• Udalak espazioetan funtzionatzeko onartu dituen barneko arauak bete eta betearaztea.

• Esleipendunak konpromisoa hartzen du behar bezala jokatzen ez duten zerbitzuko langileak kanporatzeko, eta modu berean jokatuko du gaitasun teknikorik edo eginkizunak garatzeko eraginkortasunik ez duten langileekin.

8. OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA

El/los contratista/s, además de cumplir con las obligaciones contenidas en el pliego de cláusulas administrativas particulares y de las que resulten de aplicación en materia de contratación, deberá cumplir con las siguientes obligaciones especiales:

• Cumplir y hacer cumplir las normas internas que el Ayuntamiento haya aprobado para el funcionamiento de los espacios.

• Las/la empresa/s adjudicataria/s se compromete/n a retirar a aquellas personas destinadas al servicio que no procediesen con la debida corrección, capacitación técnica y eficiencia en el desempeño de sus tareas.

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

• Esleipenduna arduratuko da jarduera egin edo burutzeko garaian pertsonei edo gauzei egin dakiekeen kalteez. Horretarako, esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu beharko du, hain zuzen ere, jendeak eraikinaren barruan izan dezakeen edozein istripu-motari aurre egin ahal izateko.

• Las/la empresa/s adjudicataria/s será/n responsable/s de cualquier daño que pueda ocasionarse a personas o materiales, como consecuencia del desempeño o ejecución de su actividad. A tal efecto, cada adjudicatario deberá contratar un seguro de responsabilidad civil a fin de cubrir cualquier tipo de accidente que pudieran sufrir las personas usuarias dentro del recinto en el que se está desarrollando la actividad.

• Esleipendunak dituen langileek lokaletan nahiz Errenteriako Udalaren edozein jabetzatan sor ditzaketen kalteak, altzarietan edo instalazioetan, etab., esleipendunak ordainduko ditu.

• Los daños que el personal del adjudicatario pueda ocasionar en los locales, mobiliario, instalaciones o cualquier propiedad del Ayuntamiento de Errenteria serán indemnizados por el adjudicatario.

• Esleipendunak kontratatutako zerbitzuetara atxikiko ditu behar adina giza-baliabide, baliabide tekniko eta material zerbitzuak egoki emateko denboran eta moduan.

• El adjudicatario adscribirá a los servicios contratados los medios humanos, técnicos y materiales suficientes para la prestación adecuada de los mismos en tiempo y forma.

• Adjudikazioduna arduratuko da ekarritako material teknikoak eskatutako kalitatekoak edo goragokoak izateaz, eta inolaz ere ezingo da kalitate gutxiagoko materialik ekarri.

• El adjudicatario se responsabilizará de que los materiales técnicos aportados, sean de la calidad solicitada o superior, en ningún caso se podrá aportar material de inferior calidad.

• Esleipenduna beharturik egongo da Memoria Teknikoan aurkeztutako giza-baliabideekin eskainitako zerbitzuak ematera, eta aldaketaren bat egin nahiko balu, aurretik, idatziz, baimena eskatuko du.

• Cada adjudicatario vendrá obligado a prestar los servicios ofertados con los medios presentados en la Memoria Técnica, siendo necesario solicitar por escrito permiso previo para realizar modificaciones.

• Kontratistak kontratu honetan aipatzen diren funtzioak egin beharko ditu, horretarako kolaboratzaileak edo enplegatuak eduki ahal izango ditu, baina hauek ez dute Udalarekin inolako menpekotasun-eskubide edo lan-harremanik izango.

• Los contratistas deberán realizar las funciones propias a las que se refiere el presente contrato, pudiendo tener colaboradores o empleados en su trabajo, quienes por ello no adquirirán ningún derecho de dependencia o

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

• Zerbitzua emateaz arduratuko diren langileak esleipendunaren menpe soilik egongo dira. Horregatik, esleipendunak nagusi edo enpresari izateari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu. Dena den, ezingo da inolako loturarik sortu Udalaren eta esleipendunak dituen langileen artean.

• Esleipenduna beharturik egongo da, kontratua gauzatzeko dituen langileekin, indarrean dauden legezko xedapenak betetzera, bereziki lan- eta zerga-arloko legeria eta, horrela, Udala edozein gastutatik edo horri buruzko arduratik salbuetsita geratuko da.

Horrela, bada, bere kontura izango dira eragin diezazkiokeen Aurreikuspen izaerako zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak.

• Esleipendunak honako egoeren ondorioz sortzen diren absentziak ordezkatuko ditu: lanerako aldi baterako ezintasuna, oporrak, baimenak eta absentismoa. Eta, era horretan, kontratuak irauten duen aldi osoan zehar, kontratatutako zerbitzuen beharrak beteko dira. Ordezkapen hori ordezkatutako pertsonaren antzeko prestakuntza eta/edo esperientzia duten langileekin egingo da.

• Grebarik izanez gero, esleipendunak gutxieneko zerbitzuak bermatzeko ardura izango du. Gutxieneko horiek aldez aurretik adostuak izango ditu indarrean dagoen araudiaren arabera. Horrelakoetan, esleipendunari adostutako gutxieneko zerbitzuei

relación laboral alguna con el Ayuntamiento.

• El personal encargado de la realización del servicio dependerá exclusivamente del adjudicatario, por lo que éste tendrá todos los derechos y deberes inherentes a su calidad de patrono o empresario, sin que en ningún caso pueda establecerse vinculación alguna entre el Ayuntamiento y el personal del adjudicatario.

• Cada adjudicatario estará obligado, con respecto al personal que emplee en la ejecución del contrato, al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes, especialmente en materia de legislación laboral y fiscal, quedando el Ayuntamiento exonerado de cualquier gasto o responsabilidad al respecto.

Así pues, serán de su cuenta las obligaciones fiscales o de índole de Previsión y Seguridad Social que le pudieran afectar.

• Cada adjudicatario sustituirá las ausencias derivadas de incapacidad temporal, vacaciones, permisos y absentismo, de manera que durante todo el periodo de duración del contrato, se cubran las necesidades de servicio contratadas. Dicha sustitución se realizará con personal con similar formación y/o experiencia de la persona sustituida.

• En caso de huelga, cada adjudicatario será responsable de garantizar los servicios mínimos necesarios, los cuales habrán sido previamente pactados de conformidad con la normativa en

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

dagokien zatia ordainduko zaio.

vigor. En este caso, se abonará a cada adjudicatario, únicamente, la parte correspondiente a los servicios mínimos pactados.

• Esleipendunak zerbitzuak emateko dituen langileak kontrolatu eta ikuskatuko ditu, bai egokitzen zaizkien lanak egoki bete ditzaten, bai langileak lanera joan eta ordurako bertan egon daitezen.

• Cada adjudicatario ejercerá el control y supervisión del personal con el que preste los servicios, tanto en el orden al debido desempeño de sus cometidos como en lo que respecta a la puntualidad y asistencia al trabajo de su personal.

• Esleipendunak berehala zuzenduko ditu kontratatutako zerbitzuak ematean Kultura Departamentuko arduradunek detektatzen dituzten irregulartasunak edo gorabeherak.

• Cada adjudicatario corregirá de forma inmediata las irregularidades o alteraciones en la prestación de los servicios contratados que detecten los responsables del Departamento de Cultura.

• Bere kontura izango da kontratua gauzatzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak lortzea.

• Serán a su cargo la obtención de todas las autorizaciones y licencias que se requieran para la ejecución del contrato.

• Esleipendunak Errenteriako Udalaren jabetzako tresnak, makinak eta instalazioak erabiltzeko egoera onean mantendu beharko ditu une oro. Udalaren ondasunen konponketak eta berritzeak toki entitateak ordainduko ditu.

• El adjudicatario deberá mantener en todo momento las herramientas, maquinaria e instalaciones propiedad del Ayuntamiento de Errenteria en perfecto estado para su uso. Las reparaciones y las reposiciones de los bienes del Ayuntamiento serán sufragados por la entidad local.

• Kontratistak enpresaren ordezkari bat izendatuko du, kontratatutako zerbitzuari dagokion guztirako. Ordezkari horrek nahiko botere izango du kontratatutako zerbitzuak zuzen emateko erabaki egokiak hartzeko. Baliozko solaskide bakarra izango da kontratua gauzatzearekin zerikusia duten gai guztietan.

• El/los contratista/s nombrará/n un representante de la empresa ante el Ayuntamiento en todo lo concerniente al servicio contratado. Dicho representante tendrá poder suficiente para tomar las decisiones oportunas relativas a la correcta prestación de los servicios contratados, siendo el único interlocutor válido para todos los asuntos relacionados con la

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

ejecución del contrato.

• Esleipendunak, hala badagokio, tratamendu automatizatua duten datu pertsonalak erabili behar baditu kontratua betetzeko, indarrean dagoen datuak babesteko araudian xedatutakoa bete beharko du.

• La utilización por el adjudicatario, en su caso, de datos de carácter personal objeto de tratamiento automatizado que pueda ser precisa para el cumplimiento del contrato, se efectuará con observancia de lo dispuesto en la normativa de protección de datos en vigor.

• Esleipendunak kontratatutako zerbitzuei dagokienez, kontuan hartu behar da, ezagutu ditzakeen datu guztiak konfidentzialak direla, eta datu horien identitatea eta sekretua gordeko dituela. Esleipendunak Errenteriako Udalari eta kaltetutako pertsonei kalte-ordainak ordainduko dizkie isiltasun profesionala gorde ez izanagatik.

• Todos aquellos datos que pudiera conocer el adjudicatario en relación con los servicios contratados, se entienden confidenciales, debiendo guardar la identidad y el secreto de los mismos. El adjudicatario indemnizará al Ayuntamiento de Errenteria y a las personas afectadas por los daños y perjuicios causados por no respetar el deber de sigilo profesional.

• Langileek prestakuntza egokia izango dute kontratuaren xede diren eginkizunak betetzeko eta, uneoro, publikoarekin, erabiltzaileekin, artistekin eta Kultura Departamentuak kontratatutako beste enpresa batzuetako langileekin begirunezko jokaera izango dute. Halaber, ezagutu eta bete beharko dituzte Kultur-guneko Langileen Segurtasunerako Protokoloa eta Herritarraren Arretarako Eginkizunen eta Betebeharren Protokoloa, eta egina duten eraikinetan, ekipamenduen Autobabes Planak, hala nola alor honetan geroago ezarri eta komunikatu daitezkeen xedapenak.

• El personal poseerá la suficiente formación para la realización de las tareas objeto del contrato, y deberá mostrar -en todo momento- hacia el público, personas usuarias, artistas y el personal de otras empresas contratadas por el Departamento de Cultura, un trato correcto. Asimismo, deberá conocer y cumplir lo indicado en el Protocolo de Tareas y Cometidos de Atención al Público y Seguridad del Personal en el Centro Cultural (Anexo II), y en aquellos espacios en los que haya, los Planes de Autoprotección de los equipamientos, así como las disposiciones que en este ámbito puedan determinarse y comunicarse en el futuro.

• Esleipendunak, ordainketa osagarriko eskubiderik gabe, beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak emango ditu kontratua behar bezala garatu eta betetzeko, esaterako: lan edo informazio bileretara joatea

• El/la adjudicatario/a deberá prestar, sin derecho de pago suplementario, los servicios que se estimen necesarios para el correcto desarrollo

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

Kulturako Departamentuko arduradunekin. Betebehar hori mantenduko da berme epea amaitzen den arte.

y cumplimiento del contrato, tales como asistencia a reuniones de trabajo o informativas con los responsables del Departamento de Cultura. Esta obligación se mantendrá hasta la finalización del periodo de garantía.

• Zerbitzua emateko atxikitako langile guztiek ezagutu beharko dute programatutako jardueren gaineko informazioa (sinopsiak, ordutegiak, sarreren prezioak, ikuskizunaren iraupena, zein publikori zuzentzen zaion...). Horretarako, esleipenduna arduratuko da informazio hori Kultura Departamentuari aurretik eskatzeaz.

• Todo el personal adscrito por el/los adjudicatario/s a la prestación de los servicios licitados, deberán conocer la información relativa a las actividades programadas (sinopsis, horarios, precios de entradas, duración del espectáculo, público al que va dirigido...). Para ello, el/los adjudicatario/s se responsabilizará/n de solicitar previamente dicha información al Departamento de Cultura.

2. Lotearen esleipendunak urteko ekintzen memoria aurkeztuko du, bertan gehituz egindako ekitaldien argazkiak eta bertaratutako ikus-entzuleen zenbatekoa, beti ere Kultura Sailak datu horiei buruz emandako jarraibideen arabera.

• El/la adjudicatario/a del **Lote 2,** deberá presentar una memoria anual de las actividades desarrolladas, adjuntando documentación gráfica de las actividades desarrolladas, e incluyendo datos relativos al número de asistentes a los actos, siguiendo las indicaciones que a tal efecto se faciliten desde el Departamento de Cultura.

9.- JANTZIAK

Aretoetako erabiltzaileek laguntzeko dauden langileak modu errazean ezagutu ditzaten, zerbitzu hori eskaintzen ari diren langileek alkandora edo kamiseta beltza eraman beharko dute eta galtza beltza (galtza bakeroak edo antzekoak).

Udalak aretoren batean irudi edo bereizgarriren bat sustatu nahi balu, enpresa esleipenduneko langileek irudi hori sustatzen lagunduko dute, ezingo direlarik irudi hori eramatera ukatu

9. VESTUARIO

Con el objeto de que las personas usuarias de las salas puedan reconocer al personal de asistencia con facilidad, los/as trabajadores/as que estén dando el servicio en cualquiera de las salas, deberán ir vestidos con camisa o camiseta negra y pantalón negro (jean o similar).

En el caso de que el Ayuntamiento decidiera dotar de una imagen o distintivo específico a alguno de los servicios contratados, el personal de la empresa adjudicataria de dicho servicio,

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

deberá colaborar llevando la misma imagen, sin posibilidad de negarse a ello.

10. ZIGORRAK

Kontratazio-organoak, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, ondoren aipatzen diren ez-betetzeengatik::

- Arau-hauste arinak dira:

a) Langileak behar bezala jantzita ez joatea edo itxura zantarra izatea.

b) Errespeturik ez izatea publikoarekiko, Udaleko Kultura Departamentuko langileekiko edo Erakunde Autonomoak kontratatutako hirugarrengo enpresetako langileekiko.

c) Ardurarik ez izatea zerbitzua ematean.

d) Langileak ordurako ez etortzea.

e) Segurtasun neurriak ez betetzea.

f) Zerbitzua ematen den espazioetan, sarrera ematea baimenik edo dagokien titulua ez duten pertsonei.

g) Ekitaldi bat egiteko eskatzen dena baino kalitate gutxiagoko material teknikoa ekartzea.

10. PENALIDADES

El órgano de contratación, con sujeción a lo establecido en los artículos 192 y 193 de la LCSP, podrá imponer penalidades a la empresa contratista por los incumplimientos que se indican a continuación:

- Son infracciones leves:

a) La falta de vestuario adecuado del personal o el estado indecoroso del mismo.

b) La falta de respeto al público, a las y los empleados del Departamento de Cultura del Ayuntamiento o a empresas terceras contratadas por el Organismo Autónomo.

c) La falta de diligencia en la prestación del servicio.

d) La falta de puntualidad del personal.

e) El incumplimiento leve de las medidas de seguridad.

f) Facilitar el acceso a los diferentes espacios en los que se presta el servicio a personas que no estén autorizadas o carezcan del título correspondiente.

g) Aportar material técnico de inferior calidad a la solicitada para la realización de un evento.

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

h) Kontratuko baldintza-agirietan adierazitako arau-hauste larri edo oso larri gisa kalifikatu gabeko bestelako edozein arau ez betetzea.

h) Cualquier otro incumplimiento de las normas indicadas en los pliegos contractuales no calificada como infracción grave o muy grave.

• Arau-hauste larriak dira:

a) Esleipendunaren langileak, kontratatutako zerbitzuetan, bestelako eginkizunetan aritzea zerbitzuak ematen dituzten bitartean.

b) Zerbitzu bat aldatzea justifikatutako arrazoirik gabe eta aurretik idatzizko oharrik egin gabe.

c) Instalazioen egoera onaren eta eman beharreko zerbitzuaren aurkako egoerak ez komunikatzea, bai erabiltzaileei dagokienez, bai baliabideei eta zerbitzuaren kalitateari dagokionez ere.

d) Zerbitzua behar bezala ez ematea, zabarkeria, ezgaitasuna edo esleipendunaren langileen jarrera eskasa direla-eta.

e) Kultura departamentuari berehala ez komunikatzea enpresa-larrialdiko egoerak edo antzekoak, esleipendunari ohiko edo ezohiko zerbitzuak ematea eragozten diotenak, baldintza-agirietan aurreikusitakoak, alegia.

• Son infracciones graves:

a) La ocupación del personal del adjudicatario en tareas distintas a las de los servicios contratados, durante la prestación de éstos.

b) La modificación de un servicio, sin causa justificada y sin notificación previa por escrito.

c) La omisión del deber de comunicar situaciones contrarias al buen estado de las instalaciones y desarrollo del servicio, tanto en lo referente a las personas usuarias como a los medios y calidad del servicio.

d) La prestación incorrecta del servicio, debida a desidia, ineptitud o cualquier otra causa relativa al comportamiento deficiente de los empleados del adjudicatario.

e) El no comunicar de manera inmediata al Departamento de Cultura aquellas circunstancias de emergencia empresarial o motivos análogos, que impidan al adjudicatario prestar los servicios ordinarios o extraordinarios, en las condiciones previstas en los pliegos.

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

f) Zerbitzu-prestazioa ikuskatzea eragoztea.

g) Egun baterako kontratatuko zerbitzuetakoren baten prestazioa arrazoirik gabe geraraztea edo etetea.

h) Urte batean zehar, hiru arau-hauste arin edo gehiago egitea.

f) Impedir la inspección de la prestación del servicio.

g) La paralización o interrupción injustificada de la prestación de alguno de los servicios contratados por un día.

h) La comisión de tres o más faltas leves en el término de un año.

• Oso arau-hauste larriak dira:

a) Hilabete batean zehar, bi egun jarraian edo aldizkako hiru egunetan zerbitzuetakoren baten prestazioa arrazoirik gabe geraraztea edo etetea.

b) Ordutegien betetzea sistematikoki 2 hilabetez atzeratzea edo zerbitzuak emateko moduan iruzur egitea

c) Esleipendunak soldata arloko betebeharrak ez betetzea, Gizarte Segurantzakoak eta Lan-Arriskuen Prebentziokoak, kontratua gauzatzeko atxikitako langileei dagozkienak, alegia.

d) Kontratuaren arabera, gai batean behin eta berriz men ez egitea, hala nola, zerbitzuen prestazioari dagokionez, Kultura Departamentuak idatziz egiten dituen argibideen gainean.

e) Urtebetean zehar, bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

• Son infracciones muy graves:

a) La paralización o interrupción injustificada en la prestación de alguno de los servicios dos días sucesivos o tres alternos en el periodo de un mes.

b) El retraso sistemático durante 2 meses en el cumplimiento de los horarios o fraude en la forma de prestación de los servicios.

c) El incumplimiento por parte del adjudicatario de las obligaciones en materia salarial, de Seguridad Social y Prevención de Riesgos Laborales, respecto a las y los empleados adscritos a la ejecución del contrato.

d) De acuerdo con el contrato, la desobediencia reiterada en relación con una misma cuestión, de las instrucciones que por escrito realice el Departamento de Cultura respecto a la prestación de los servicios.

e) La comisión de dos o más faltas graves en el periodo de un año.

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

f) Beste langile eta/edo erabiltzaile batzuekiko jokabide desegokia. Jokabide horiek baloratzeko, “Errenteriako Udalean barne jazarpenaren eta beste arrisku psikosozial batzuen inguruko gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko jarduera-protokoloan” zehaztutako definizioak hartuko dira erreferentziatzat.

g) Conducta inadecuada en relación a otros trabajadores y/o personas usuarias. Para valorar dichas conductas se tendrán como referencia las definiciones determinadas en el “Protocolo de actuación para la prevención y solución de conflictos en materia de acoso interno y otros riesgos psicosociales en el Ayuntamiento de Errenteria”,

Zigorren zenbatekoa, kontratuaren diru-kopuru osoarekin loturik egongo da, zuzenean, eta arau-hausteen larritasunaren arabera, honako zehapenak ezarri ahalko dira:

- Arau-hauste arinetan: kontratuaren zenbateko guztiaren %1eraino.
- Arau-hauste larrietan: kontratuaren zenbateko guztiaren %1a eta %5a bitartean.
- Arau-hauste oso larrietan: kontratuaren zenbateko guztiaren %5a eta %10a bitartean.

El importe de las penalidades estará relacionado de forma directa con la cuantía total del contrato y, en razón de la gravedad de las faltas, se podrán imponer las siguientes sanciones:

- Faltas leves: hasta el 1% del importe total del contrato.
- Faltas graves: desde el 1% hasta el 5% del importe del contrato.
- Faltas muy graves: desde el 5% hasta el 10% del importe del contrato.

Penalizazioen zenbatekoak dagokien fakturetatik kenduta ordainduko dira.

Los importes de las penalidades se harán efectivos mediante deducción en las facturas correspondientes.

Falta oso astunek, gainera, kontratua suntsiaraztea eragin dezakete, kontratua egikaritzeko funtsezko betebeharrekin zerikusia dutenean. Hona hemen funtsezko betebehar horiek:

Las faltas muy graves, además, podrán dar lugar a la resolución del contrato cuando se relacionen con obligaciones esenciales en la ejecución del contrato, que son las siguientes:

.- Zerbitzua behar bezala emateko gaitasunik ez izatea, enpresa esleipendunak bidalitako langileek ezagutza espezifikorik ez izateagatik.

.- Incapacidad de dar el servicio de forma adecuada por falta de conocimientos específicos del personal enviado por la empresa adjudicataria.

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

.- Ordutegiak betetzeko 2 hilabeteko atzerapen sistematikoa.

.- Gertatzen diren konplikazioen aurrean erantzunik eza, bai maila teknikoan, bai erabiltzaileekiko tratuari dagokionez.

.- Udal teknikariak emandako jarraibideei jaramonik ez egitea behin eta berriro, jarraibide horiek gainerako langile edo erabiltzaileentzat egoera arriskutsuak edo/eta deserosoak sortzen dituztenean.

.- Jokabide desegoki errepikatua, indarkeria eta/edo jazarpen sexual edo sexista, orientazio sexualagatiko edo identitate eta genero-adierazpenagatiko jazarpena edo jazarpen diskriminatzailea edo jarrera xenofobo edota arrazistak.

.- Laneko arriskuak babesteko legerian ezarritakoak, kontratu-betebeharrak ez betetzeagatik edo ez betetzeagatik, bai maila teknikoan, bai langile teknikoekin edo erabiltzaileekin izandako harremanetan.

11. HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERAREN INGURUKO EXEKUZIO BALDINTZAK

1) ZEHAZTAPENAK

- Baldintza-agirian ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza moduan ezarri dira, eta kontratua gauzatzean egiaztatu behar dira.
- Zerbitzu-hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.
- Uneoro zerbitzuaren erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatu behar dira.

.- El retraso sistemático durante 2 meses en el cumplimiento de los horarios.

.- Falta de respuesta ante las complicaciones que se presentan, tanto a nivel técnico como en relación al trato con las personas usuarias.

.- La desobediencia reiterada en relación con las instrucciones dadas por el técnico municipal que generan situaciones peligrosas y/o incomodas para el resto de personal u personas usuarias.

.- La conducta inadecuada reiterada, la violencia y/o acose sexual o sexista , acoso por orientación sexual o por identidad y expresión de género o el acoso discriminatorio o actitudes xenofobias y/o racistas.

.- Las establecidas en la legislación de protección de riesgos laborales, por acción u omisión del incumplimiento de los deberes contractuales tanto a nivel técnico como de relación con personal técnico o personas usuarias.

11. CONDICIONES DE EJECUCIÓN EN RELACIÓN AL USO DE LAS LENGUAS OFICIALES

1) DETERMINACIONES

- Las obligaciones establecidas en el presente Pliego se establecen como condiciones de ejecución y deben ser acreditadas en la ejecución del contrato.
- Las lenguas de servicio serán el euskera y el castellano.
- Se garantizarán en todo momento los derechos lingüísticos de las personas

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-200720O-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

usuarias del servicio.

2) HIZKUNTZEN ERABILERARAKO BALDINTZAK

2. a) Hizkuntza gaitasuna

Kontratuaren indarraldi osoan enpresa adjudikazio hartzaileak erabiltzaileekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen langileek beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan gauzatzeko gaitasuna izan behar dute.

Enpresak hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea betetzeko konpromiso-orria (eranskina) sinatuko du baldintza-agirian zehaztutako hizkuntza gaitasun maila duten langileak kontratatuko dituela adierazteko, une oro herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Lehiatzaileak lana egingo duten pertsonen zerrenda aurkeztuko du bere eskaintzan, horien guztien euskararen ezagutza adierazita.

Nolanahi ere, eskaintza egiteko unean lehiatzaileak ez badu lana garatuko duten pertsonen zerrenda zehazterik, adjudikazio-hartzaile suertatzen bada, adjudikazioa egin aurretik bermea jartzeko ematen zaion epean eskatutako euskara gaitasuna duten langileak izendatu beharko ditu. Adjudikazio-hartzaileak Errenteriako Udalari aditzera emango dio pertsona horien zerrenda.

Enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk hartu edo kideren bat aldatuko balitz, adjudikazio-hartzaileak aurretiaz emango dio administrazio kontratatzaileari horren berri. Langile horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna izan beharko

2) CONDICIONES DE USO DE LAS LENGUAS

2. a) Competencia lingüística:

Durante todo el periodo contractual, las personas trabajadoras que la empresa adjudicataria designe para llevar a cabo su trabajo de relación directa con las personas usuarias del servicio deberán estar capacitadas para trabajar en las dos lenguas oficiales.

La empresa adjudicataria firmará una hoja de compromiso (anexo) al objeto de declarar que contratará personal con la capacidad lingüística señalada en el pliego de condiciones técnicas, y garantizar de esa manera los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Las empresas presentarán en sus ofertas la relación de personas que emplearán e indicarán el conocimiento de euskera de las mismas.

Si en el momento de realizar la oferta las empresas no están en disposición de precisar la relación de personas que emplearán, tras la adjudicación del servicio aquella que resulte adjudicataria deberá designar el personal con la capacidad lingüística en el plazo concedido para depositar la fianza. Deberá, asimismo, presentar la relación de dichas personas al Ayuntamiento de Errenteria.

Una vez realizada la contratación, en el caso de que alguna nueva persona se incorpore al servicio o alguna de las personas trabajadoras sea sustituida, la empresa adjudicataria deberá comunicárselo a la administración contratante.

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

dute. Beste horrenbeste egin beharko du subrogazio bidez kontrataturiko langilerik balego horiek ordezteko kasuan ere.

Kontratu honetan zehazki:

Kontratuaren helburu den zerbitzua emateak herritarrekin eta udal langileekin zuzeneko harremanean lan egitea eskatzen du, eta bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskaintzeko, kontratuari atxikitako langileek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak jasotako gaitasun mailen pareko gaitasunaren jabe izan behar dute (eranskina).

Hori horrela, bermatu beharko da lote bakoitzean Kultura departamentuko arduradunekin harremanetan egongo den solaskidea zein 2. lotean arituko diren pertsonek C1 gaitasun mailaren pareko ahozko gaitasun maila dutela:

- Ahozkoan: informazioa eman eta eskatzeko gaitasuna izan behar dute, zuzentasun osoz eta jariotasunez, aurrez aurreko elkarrizketetan zein telefono bidezkoetan.

2. b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntza

Azken urteotan euskararen erabilera areagotzeko egiten ari den ahalegina osatu nahi du Udalak zerbitzu honen bidez. Hori horrela, enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua emango du Errenteriako Udalak

Quien realice la sustitución o quien se incorpore deberá disponer de la capacidad lingüística solicitada. Habrá de cumplir ese mismo requisito en los casos de sustitución de personal contratado mediante subrogación, si lo hubiera.

En este contrato, en concreto:

La prestación del servicio objeto del contrato exige una relación directa con la ciudadanía, personal municipal y representación política, por lo que al objeto de ofrecerlo con total garantía es necesario que en función de las tareas que desempeñen las personas trabajadoras durante la duración del contrato tengan una competencia lingüística similar a la recogida en el Marco Europeo de Referencia para las Lenguas (anexo).

En este sentido, se deberá garantizar que tanto la persona interlocutora que esté en contacto con las y los responsables del departamento de Cultura en cada uno de los lotes como las personas que vayan a formar parte del lote 2 tengan un nivel de competencia oral equivalente al nivel de competencia lingüística C1:

- Competencia oral: capacidad para facilitar y solicitar información, tanto presencial como telefónicamente, y comunicarse con suficiente facilidad.

2. b) Idioma que se utilizará en la prestación del servicio

Mediante la prestación de este servicio el Ayuntamiento de Errenteria quiere reforzar el esfuerzo que viene realizando durante los últimos años a favor de un mayor uso del euskera. Es por

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

emango lukeen baldintza bertsuetan.

Herritarrak Udalarekin harremanetan jartzen direnean harreman horiek zein hizkuntzatan izan nahi dituzten galdetzen die Udalak. Enpresa adjudikazio-hartzaileak herritarren hizkuntza hautua kontuan hartu eta zereginak betetzerakoan honela jardungo du:

Ahozko harremana:

- Herritarrekin oro har: zerbitzuaren erabiltzaileekiko ahozko lehenengo arreta, aurrez aurre zein telefonoz, euskaraz izango da. Lehenengo harreman horretan hizkuntza aukeratzeko eskubidea dutela jakinaraziko die eta, hortik aurrerako jardunean haien hizkuntza hautuaren arabera jardungo dute. Erabiltzaileak edozein unetan erabili ahal izango du hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

- Haur eta nerabeak: komunikazioa euskaraz izango da.

- Udal ordezkariekin, berriz, honela jardungo du:
  - euskaraz, hala nahi duten udal ordezkari politikoekin
  - langileekin: euskaraz

Idatzizko harremana:

Parte-hartzaileentzako agiri eta komunikazio guztiak (inprimakiak, oharrak, deialdiak, ordutegiak...) zein jardueren komunikaziorako erabiltzen dituen dibulgazio euskarriak euskaraz edo ele bitan sortu eta bideratuko

ello que la empresa adjudicataria realizará el servicio en unas condiciones similares a las que de hecho se exigen al Ayuntamiento de Errenteria.

En sus relaciones con la ciudadanía el Ayuntamiento consulta su opción lingüística. La empresa adjudicataria del servicio respetará dicha opción lingüística y en el desempeño de sus tareas procederá de la siguiente manera:

Relación oral:

- Con la ciudadanía en general: la atención verbal inicial de la empresa adjudicataria a las personas usuarias del servicio, tanto presencial como telefónica, será en euskera. En ese primer contacto se les informará de su derecho a elegir la lengua de relación y a partir de ese momento actuarán en función de su opción lingüística. La persona usuaria podrá ejercitar en cualquier momento su derecho a la elección de lengua.

- Niños, niñas y adolescentes: la comunicación será en euskera.

- Con las y los representantes municipales:
  - en euskera, con las y los representantes políticos que así lo deseen
  - personal municipal: en euskera

Relación escrita:

Todos los documentos y comunicaciones (impresos, notas, convocatorias, horarios...) a las personas participantes, así como los soportes divulgativos que utilice para la comunicación de las

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

ditu enpresak, ahozko harremanetarako B atalean adierazitako irizpide bertsuei jarraituz.

2. c) Hizkuntza paisaia

Enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua ematean herritarrei begira jartzen dituen errotulu, ohar, vending makinetako binilo eta gainerako oharrak (menuak, prezioak, ordutegiak...), kartel eta gainerako komunikazio orokorrak irizpide hurrenkera honen arabera erredaktatuko ditu:

- Mezuak piktograma bidez egingo ditu.
- Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo ditu euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia duten hitzetan, edota oso zabalduta daudenetan.
- Aurreko kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egongo ditu, euskarari lehentasuna emanez, betiere Udalarekin adostuta.

2. d) Administrazioari aurkeztu beharreko dokumentazioa

Enpresa adjudikazio-hartzaileak kontratuan zehar eratu eta Udalari entregatzen dizkion agiriak euskaraz sortu eta bideratuko ditu.

Nolanahi ere, Kultura sailak adierazita, enpresa adjudikazio-hartzaileak dokumentu hauek (baleude), aldez aurretik adieraziko zaio eta ele bitan aurkeztuko

actividades, serán creados y dirigidos en euskera o bilingüe por la empresa, siguiendo criterios similares a los expresados en el apartado B de las relaciones orales.

2.c) Paisaje lingüístico

La empresa adjudicataria redactará en euskera o en las dos lenguas oficiales los rótulos, las notificaciones, avisos, hojas informativas (menú, lista de precios, horarios) carteles etc. que ponga a disposición de la ciudadanía durante la prestación del servicio de acuerdo al siguiente orden de criterios:

- Los mensajes se realizarán mediante pictogramas.
- Cuando no pueda utilizarse un pictograma, se realizarán en euskera cuando la grafía de las palabras sea similar en euskera y en castellano o se trate de palabras de uso extendido (udaletxea, kultur etxea...).
- Si los casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad del Ayuntamiento.

2.d) Presentación de documentos a la Administración

La empresa generará y tramitará en euskera todos los documentos que entregue al Ayuntamiento durante el contrato.

No obstante, de acuerdo con lo indicado por el Departamento de Cultura, presentará los siguientes documentos (si los hubiera) en bilingüe:

ESKUb30f6696-6546-48ca-a61e-741a2fd3472f

C.I.F. P-2007200-E • Alfonso XI., z/g, 3. • Tfnoa: 943 449634 - Fax 943 449664 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa) • Posta-kutxatila 69 • www.errenteria.net

ditu:

- ulertzeko beharrezko gaitasunik ez duten edo/eta ele bitan jasotzeko hautua egin dutenei eman beharrekoak.
- informazio batzordeetan kontratatutako zerbitzuari buruzko azalpenak ematea xede duten dokumentuak.

- los que deben entregarse a las personas que han optado por relacionarse con el ayuntamiento en los dos idiomas.
- los que tengan por objeto dar cuenta del servicio contratado en las comisiones informativas.

2. e) Hizkuntza baldintzen jarraipena

Udalak enpresa adjudikazio-hartzaileak ematen duen zerbitzuaren jarraipena egingo du kontratua gauzatzen den epe osoan, indarrean dagoen araudia bete eta herritarren eskubideak bermatzeko.

Kultura sailak harremanetan jarriko ditu enpresa adjudikazio-hartzailea eta Udal Hizkuntza Politika saila, jendaurrean arituko diren langileei euskara gaitasuna egiaztatzeko elkarrizketa egin diezaien, zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskain dezaketen egiaztatzeko asmoz. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak jasotako titulazioren bat aurkeztuz gero, berriz, ez dute elkarrizketa egin beharrik izango. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.

Elkarrizketa eguna eta ordua Udal Hizkuntza Politikak adostuko du zerbitzua jendaurrean emango duten langileekin, eta gehienez ere zerbitzua ematen hasi eta hamabost egunera egingo da.

2.e) Seguimiento de los criterios lingüísticos

